

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko apirilak 28 · 1268 zenbakia

**NORK PILATUKO DITU
KILOMETRO GEHIEN?**



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27 Eibar Arretxe 9 Azpeitia



HEZKUNTZA ESKAITZA 2023/24

Hazi, hezi, Mekan ikasi!





AURREMATRIKULA
Maiatzak 8-26ra.



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka-elgoibar.net



GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA **BERRIA!**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURRA ETA GALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOCERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAINTZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN MANTENTZE ETA SEGURITASUNA **BERRIA!**
2000 HATZAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOA
- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA **BERRIA!**
2000 HATZAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOA

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE
Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Hurrengo ikastertera begira jarri dira herriko hezkuntza zentroak eta hasi da matriculazioa egiteko sasoa. Armeria Eskolako eta Uni Eibar-Ermuako zuzendariekin egon gara Lanbide Heziketari buruz berbetan eta euskaraz egiteko hautuaren alde egin dute biek.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Toscana Ugalde

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Lorategi dotorea

Amañatik Urkora bidean, Xoxola eta goiko baserriak eta gero dagoen Ama Birginari jarri zaion lorategia txalotu nahiko nuke. Mila esker hain dotore ipintzeagatik.

Yvette Miguez

Ba, azkenean, ezin da izan

Eibarko Txirrindulari Elkartearen egutegiko lehenengo lasterketa, 45. Udaberri Saria, martxoaren 5erako zegoen iragarrita. Bizitako arazoek (moto-loturen plantoa, trafikokertzaingutxi, lasterketen segurtasuna ezin ziurtatu, klubek gastu horiei ezin aurre egin) Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzera behartu gintuzten. Gaur da eguna laguntzen berririk ez duguna. Zorionez, Gipuzkoako Diputazioari esker probintziako egutegiko lehen lasterketan, hasi ziren jokatzeko, batzuk bertan behera geratu baziren ere.

Bertan behera geratu zen aipatutako Udaberri Saria apirilaren 30ean berreskuratzea proposatu zigun Federazioak; baina, azkenean, egutegi-arazoak tarteko direla, ezingo da jokatu. Hori bai, 52. Valenciaga Oroitzarrea antolatu genuen, arrakastatsu, eta apirilaren 16an kadete mailako Eibarko Txirrindulari Elkartea Saria. Egutegiari jarraituz, maiatzaren 28an emakumezkoendako V. Eibar Hiria Sari Nagusia jokatu da, UCI mailako txirrindulari profesionalekin, eta ekainaren 18an junior mailako 87. San Juan Sari Nagusia.

Horregatik, 2023 honetan egitarauko lasterketa guztietako antolaketa lanetan jarraituko dugu. Eskertuz, bide batez, Udalak, Diputazioak eta beste kolaboratzaile guztiak eskaintzen diguten laguntza txirrindularitza zaleek lasterketekin gozatzeko parada izan dezaten.

Eibarko Txirrindulari Elkartea

Astean esanak



50 urtetik gorako herriko gizonok hiketan egiten diagu geure artean, eta orain gazteagoekin ere bai. Baina emakumeen artean ez dik inork egiten, galdu egin duk transmisioa herrian. Nire amak 91 urte dizkik, eta ez zekik hiketan. Baserrietan bai, gorde ditek, baina asko 80 urtetik gorakoak dituk. Hori duk latzena. Euskararen aldetik sekulako galera iruditzen zaidak. Baldarra duk hitanoa? Ez duk: erregistro bat duk hiztunari lanabes bat ematen diona hobeki komunikatzeko eta beste aberastasun batekin hitz egiteko. Errespetuzkoa duk? Lagunekin eta maite dituanekin errespetuz aritzen haiz hizketan. Kontua duk, normalean, berriketarako erabiltzearekin nahasten dela.

FERNANDO OIARTZUN, euskara teknikaria

Kausa on baten alde zuzen jokatzeko dugunean kausa ona jarraituko du izaten; baina, bere alde zuzen ez badugu jokatzeko, badu arriskua kausa ez hain ona bihurtzeko. Helburuak ez dituelako baliabideak justifikatzen, baizik eta azken hauek izango direlako helburua justifikatu dezaketenak. Horregatik, izan zena baino iragan hobea goa asmatzeko badu arrisku hori: izan zezakeena baino etorkizun kaskarragoa prestatu ahal izatearena.

JAVIER CERCAS, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONTZI-GARBITZE → Harrikoa. Gaztelazko 'fregado'. "Gaur zeñek egin dittu ontzi-garbitziak?"

ONTZITERIA → Sukaldeko tresneria. Gaztelazko 'vajilla'. "Haren arrioko ontziterixia, dana burdingorritzua".

1970

Juanita Unzuetaekin balleta ikasten

Eibarren dantza klaseak ematen hasi zen lehenetarikoa izan zen. Gerra Zibiletik ihesi, Errusiara bidali zuten 1937an eta han balleta ikasi zuen, Vladimir Biely irakaslearekin. 1956an itzuli zen Eibarrera eta Ballet Eibarres izeneko dantza eskola jarri zuen.



Farmaziak

BARIXAKUA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 29
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 2
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 3
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 5
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Esteban Montero Grande**. 88 urte. 2023-04-20.
- **Marivi Elustondo Aranegi**. 74 urte. 2023-04-21.
- **Mari Carmen Villar Bonilla**. 84 urte. 2023-04-23.
- **Juan Ignacio Aranegi Etxebarria**. 56 urte. 2023-04-24.
- **Bixente Arrizabalaga Alberdi**. 93 urte. 2023-04-24.
- **Armando Madinabeitia Lera**. 71 urte. 2023-04-25.



Zabaldute Toribio Echevarria sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea

Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoa erakundeak aste honetan aurkeztu dute Toribio Echevarria sariaren 33. edizioa. Ekitaldian Toribio Echevarria Sariaren enpresa-ekimen berriak bultzatzeko orduan duten eragina azpimarratu zuten Jon Iraola alkateak, Marisa Arriola BIC Gipuzkoako zuzendari kudeatzaileak eta Ana Telleria Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotziak. Hala, izaera berritzailea eta zientifiko-teknologiko nabarmena duten Euskal Autonomia Erkidegoko startupek eta enpresa-proiektuek hitzordua dute, beste behin, Euskadiko ekimen ekintzaileak aitortzeko eta jarduera abiatzen laguntzeko asmoz sortu zituzten sari hauekin.

Toribio Echevarria sariaren bi kategoriatan nagusi dituzte: "Idea/Enpresa-proiektuak" eta "Enpresa berria". Proposamen irabazleek 10.500 euroko diru-saria jasoko dute, eta proiektu horiek garatzeko funtsezkoak diren laguntza-, finantzaketa-, aholkularitza-, mentoring- eta prestakuntza-programetan parte hartzeko aukera. Horiez gain, sari bat dago nazioartekotze-bidean laguntza behar du-

ten enpresa-ekimenetara bideratua eta Eibarko Udalak ematen dituen beste bi sari berezi.

Kategoria bakoitzean sartzeko baldintzak eta oinarri guztiak www.toribioechevarria.com webgunean kontsultatu daitezke. Hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 24an amaituko da.

Sari bereziak eibartarrentzat

Eibarko Udalak, gainera, beste bi sari berezi ematen ditu, "Eibarko Enpresa" eta "Especializazio Estrategikoa" izenekoak, herriko enpresa-sare berritzaile eta lehiakorra garatzen laguntzeko. Horietako bakoitzak 10.500 euroko dotazioa du, eta BIC Gipuzkoa erakundearen bidez formazio espezializatua jasotzeko aukera. Bi kasuetan, oinarri ezartzen dute enpresa irabazleek egoitza Eibarran izan behar dutela edo, Saria eman eta gehienez urtebeteko epean, herrian ezartzeko konpromisoa hartu behar dutela, gutxienez, bi urterako.

Sari hauek duten garrantziarengatik, ideia edo proiekturen bat duten guztiak animatzen dituzte parte hartzera.

"Emakumeak Aberria eginez" erakusketa ikus daiteke Unzaga hotolean

Emakume Abertzale Batza elkar-tearen mendeurrenaren omenez antolatutako "EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez" izeneko erakusketa ikusgai egongo da Eibarko Unzaga Plaza hotolean, maiatzaren 1era arte. Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoak antolatu du erakusketa eta Eibarko EAJ-PNV alderdiaren ekimenez ekarri dute gure herrira. Emakume Abertzale Batza (EAB) 1922an sortu zen, Euzko Gaztedi-ren babesean eratutako emakumeen talde gisa. Hasieratik bertatik, EABk erakutsi zuen emakumeen erantzukizunen artean bazirela aberriaren aldeko zabalkundea egitea, eta hezkuntza, elkartasun-zerbitzuak zein gizarte-laguntza eskaintzea. Hogeita lau panelek osatzen dute erakusketa, gaitzako sei multzo handitan banatuta. Multzo horietan, elkar-tearen ibilbide osoko lana eta pentsamoldea jasotzen dira: 1) EABren hasierak 2) EABren loraldia; 3) «Jaungoikoa eta Lagi Zarra» (JEL) doktrina; 4) EAB eta hezkuntza; 5) EAB eta gizarte-laguntza eta 6) EAB gerran eta erbestean. Goizeko 10:00etatik 20:00etara joan daiteke ikustera.





Elkarrizketatu berrien lekukotasunak "Eibartarren Ahotan"-en

Ego Ibarra batzordearen "Eibartarren Ahotan" atalari gehitu dizkieten azken elkarrizketatuek herriari buruzko jakingai asko ematen dituztela adierazi dute arduradunek, "ikuspegi zeharo ezberdinetatik". Ahozko lekukotasunen grabazioz errendara gehitu dituzten azken eibartarrak Roberto Aizpurua Leyaristi, zinegotzi izandakoa eta sindikalista; Alberto Alava Martinez, EMKko kidea; Julio Arbulu Gallastegi, Karmelitetako fraidea; Serafin Basauri Arteaga, euskaltzalea; Felix Berraondo Echeverria, behargina; Augusto Borderas Gaztambide, pediatra; Antonio Cancelo Alonso, Juan XXIII kontsumo-kooperatibaren eta Eroskiren sortzailea; Matilde Isasi-Isasmendi Gallastegi emagina; Andresi Zabala Abasolo, praktikantea; eta Mikel Usobiaga Iriondo, Gure Herria elkarteak kidea dira. Beraien lekukotasunak beste askoren testigantzekin batera, www.egoibarra.eus helbidean aurkituko dituzue.

Bihar Ixuan egingo den bertso-afariarekin hasiko dira Santa Kurutz jaiak ospatzen

Asteburu honetan hasiko dira Santa Kurutz jaiak, bihar Ixuan jatetxean egingo den bertso-afariarekin. Aurretik, 19:00etan, po-teo musikatuari ekingo diote Untzagan, eta 20:30ean irtengo da Ixuara igotzeko autobusa, udaletxe aurretik. Afaria 21:00etan hasiko da, honako bertsolarien parte-hartzearekin: Julio Soto, Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia. Eta maiatzaren 3a (eguztana) Santa Kurutz eguna dela ospatzeko,

17:30ean kanpaiak joko dituzte eta, ondoren, 18:00etan, meza egingo da ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Eta jaiak hurrengo asteburuan, maiatzaren 6an eta 7an, jarraituko du, Santa Kurutzeko Jai Batzordeko kideek, udalaren laguntzarekin, prestatu duten egitarauarekin. Urtero bezala, jaietarako dirua batzeko, rifak saltzen ibili dira, eta irabazleak argazkian ikusten duzuen karretilla ederra eramango du etxera.



Marines Zubizarreta eta Paco Ocejo

Ez zaituztegu inoiz ahaztuko, ez zaituztegu inoiz galduko, gure bihotz barrenean eramango zaituztegu **BETIKO**.



- LAGUNAK -

Benito Martinez Castresana

2023/04/20
Zulian hil zen, 93 urterekin

**Eibarko Udal Musika Bandako partaidea
40 urtez**

"Guk, zuk musika beste, maite zaitugu"



- ZURE FAMILIA -



Emakume migratzaileei buruzko aurreiritziak hausteko tailerra

Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren Unitateak eta Berdintasun Zerbitzuak, Egoai-ziarekin eta Alboanekin batera, emakume migratzaileen gaineko aurreiritziak hausteko eta, oro har, migratzaileen integrazioa bultzatzeko, prestakuntza-tailerra antolatu dute. Maiatzaren 8an izango da, Andretxean (Erraketistak aretoan), 18:00etan hasita. Arduradunen berbetan, “saioan, meto-

dologia parte-hartzaileen bidez, emakume migratzaileei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak hausten joango dira eta, era berean, gure inguruan mundu osoko milaka emakumeren errealitatea, testigantzak eta ahotsak ezaguturaziko dira”.

Izena emateko, mezua bidali behar da immigrazioa@eibar.eus posta helbidera, eta bertan parte hartzeko gogoia adierazi.

Maiatzerako ikastaro eskaintza zabala prestatu dute KZgunean

Eibarko KZguneko maiatzeko planifikazioen eskaintza prest dago. Bertan ematen dituzten ikastaroetan izena eman nahi dutenek aukera ezberdinak dituzte: KZgunera joan daitezke (aldeaz aurretik hitzordua eskatu beharko da nahitaez, 943 02 36 37 telefono zenbakira deituta edo Interneten bidez, www.kzgunea.eus helbidean); telefonoz deitu (izena telefonoz emateko KZguneko erabiltzaile izatea derrigorrezkoa

da; edo web orrian (www.kzgunea.eus) ere eman daiteke izena (kasu honetan ere derrigorrezkoa da erabiltzaile izatea). Formakuntzarako zein ikastaroetan dagoen eskaintza guztia Interneten kontsultatu daiteke, KZgunearen web orrian sartuta. Eibarko KZgunea Portalea kultur etxeko 2. solairuan dago eta astelehenetik barixakura zabalitzen dute, egunero, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara.

Alkohol gehiegi edatearen kontrako pegatina lehiaketa deitu du Udalak

Udalaren Gizartekintza batzordeak jaietan alkohol larregi ez edateko mezua modu umoretsuan zabalatzeko pegatina lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea aste honetan zabaldu da eta interesatuek maiatzaren 12ra arte aurkeztu ditzakete beraien proposamenak. Informazio guztia udalaren web orrian dago.



Escola jazarpenari buruzko hitzaldia antolatu dute gurasoentzat, martitzenean Portalean

Bullyngaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, maiatzaren 2an (martitzena) gurasoei zuzendutako hitzaldi bat emango da, euskaraz. Portaleko areto nagusian izango da, 18:00etan. Gizartekintzak antolatutako “Bullyng egoerak minimizatzen ingurune seguruak sortu” izenburuko hitzaldia Gipuzkoako Foru Aldundiaren TREBA gurasoak programak finantzatzen du. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea, ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteetan edo sailaren helbide elektronikoan: gizartekintza@eibar.eus



Josu Mendicutte buru duen hauteskunde zerrenda osatzen dutenak aurkeztu dituzte

Barixakuan aurkeztu zuen Josu Mendicutte EAJ-PNVko alkategaiak berarekin batera hauteskudeetara aurkeztuko den taldea, “hiriak aurrera egin dezan”. Aiora Arrieta eta Patricia Guruzeta gehitu zaizkio taldeari, eta Amaia Albizu, Elena Ibañez, Mertxe Garate, Jon Perez eta Alberto De la Hoz zinegotziek ere taldean jarraituko dute: “Ondo lan egin duen eta Eibarrek erakargarritasuna berreskuratzeko motibazio handia duen talde bat osatzen dugu, jendearengandik hurbil egoten dakiena. Gure hiriaren alde onena eman nahi dugun pertsonak gara, inori protagonismoa kendu gabe, eibartarra izateaz harro dauden eta Eibar gehiago izatea nahi

duen pertsonak”. Aiora Arrietak (Mutriku, 1988) hamar urte daramatza Eibarren bizitzen eta independente gisa aurkeztzen da. Administrazio eta Finantzeta goi-mailako gradua du, eta Irizar kooperatiban egiten du lan. Eta Patricia Guruzeta (Eibar, 1975) Administrazio eta Finantzeta lizentziaduna da, eta hainbat enpresatan aritu da.

Zerrenda osatzen, beste hauek daude: Iker Badiola, Irma Iris Ruiz, Ana Alberdi, Josu Agirre, Begoña Muguruza, Elen Muniategi Pastor, Oskar Alberdi, Mixel Balenciaga, Ivan Honrubia, Ione Telleria, Isabel Azpiaz, Pillipa Milikua eta Isabel Elorza Udal Batzarreko presidentea.

Aste honetan zabaldu dute Sautsiko skate-pista berria

Obrak hasi zirenetik bi hilabete igaro ondoren, Sautsiko skate-pista berria erabiltzeko moduan dago eguaztenaz geroztik. Daniel Yabar Ramosek egin du pistaren diseinua eta, horretarako, halako kirol-modalitateetan ibiltzen direnen proposamenak eta iradokizunak hartu dituzte kontuan. Udalak 217.376 euro ordaindu ditu lanengatik.



"Ikasten komunitatea" jarduera berrian parte hartzeko gonbidapena

Astero antolatzen dituen hitzaldi eta bestelako ekitaldiez gain, Ikasten elkarteak “Ikasten komunitatea” izeneko jarduera berezia abiatu du. Parte hartzeko interesa duenak, 681340819 telefono zenbakira deitu dezake izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko.



PUBLI RESA
objeto publicitario

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea



kili & klik
argazkilaritza fotografia

kili_klik

kili@karsortzen@gmail.com • 646114447 • Iruleko Olayuren 1 behea



Langileen eskubideak kalean borrokatzeko eguna



Langileen Nazioarteko Eguna 1889an ezarri zen, Parisen, II. Internazionalen, 8 orduko lan eguna eskatzeko. Eta gaur egun 1886ko maiatzean Chicagon egindako manifestazioan hil eta atxilotu zituztenen oroimenez ere ospatzen da. Harrezkero, mundu osoko beharginek ospatu dute Maiatzaren Lehena, modu batean edo bestean, tokiaren eta garaiaren arabera. Baina, sorreran bezala, gaur egun ere langileen eskubideak eskatzeko eta borrokatzeko eguna izaten jarraitzen du.

LAB-en agerraldia bideoan ikusteko:



Maiatzaren Lehenean “Egiteko beste mundu bat” eskatuko du LAB sindikatuak, martitzenean Untzagan egindako prentsaurrekoan esan zutenez. Sindikatuko ordezkariek berbetan, “aldaketa garaia da. Bizi dugun krisi ekosozialaren aurrean trantsizio ekosozialista eta feminista martxan jartzeko beharra aldarrikatzen ari gara LABetik; egiteko beste herri bat, egiteko beste mundu bat. Bi dira abian jarri beharreko prozesuak: batetik, ekoizpen eta kontsumo ereduaren aldaketa ordenatua; eta bestetik, ondasunaren banaketa, guztion bizitzak bizigarriak izateko. Jatorriaren arabera lan eta enplegu banaketarekin apurto beharra dago, soldata arrakalarekin bukatu, zaintza-lan guztien aitortza ekonomikoa, politikoa eta soziala behar da”. Gauzak horrela, Maiatzaren Lehenean sindikatuaren aldarrikapenak lau haizetara zabaltzeko prest agertu dira, “patronalaren eta instituzioen jarrera salatzearekin batera”. Aldarrikapen nagusiak lau atal hauei lotutakoak dira: zaintza-lanak, enplegua eta aberastasuna banatzea; herritar orori zerbitzu publikoak eta oinarritzko eskubideak bermatzea; trantsizio ekosozialista abiatzea; eta burujabetzan sakondu eta egungo eskumenak baliatzearekin batera, erabaki ahalmena gartzeko tresnak sortzea.

Azken urteetan egindakoaren bidetik, aurten ere Eibarren izango dira manifestazio eta ekitaldi politikoa, 12:00etan Untzagatik abiatuta. Eta ondoren, 14:30ean, herri-bazkaria egingo da udaletxeko arkupeetan (aukera beganoa egongo da) eta, ostean, bazkaloste musikatua, Garazi eta Amaiurrekin (bazkarirako tiketak erosteko sindikatuaren egoitzetara jo daiteke edo, bestela, LABeko kideren batekin harremanetan jarri).

ELA, CCOO eta UGT sindikatuen mobilizazioak hiriburuetan izango dira

ELA sindikatuak, berriz, Bilbon (11:30, Jesusen Bihotza) eta Iruñean (11:30, Gurutze Plaza) deitu ditu manifestazioak. Pentsioen eta soldaten aldeko grebak bultzatzen jarraituko duela azpimarratu du sindikatuak eta, horregatik, “Borrokan, irabazteko” goiburua aukeratu dute. Izan ere, iaz lau egunetik behin garaipen bat lortu zuela esan du sindikatuak, 2022ko urtekaria eskuan. Sindikatutik adierazi dutenez, “Europar greba uholdea dago. Frantziako, Portugalgo, Alemaniako eta Erresuma Batuko sindikatuak soldaten eta pensioen alde mobilizatzen ari dira. Grebak ez dira iraganeko gauza bat, batzuek hala esan arren: gaurkotasun handiko tresna dira. Euskal Herrian ere langile asko greban daude edo egon dira”.

Bestalde, CCOO eta UGT batera mobilizatuko dira Maiatzaren Lehenean, “Soldatak igo, prezioak jaitsi, irabaziak banatu” goiburuari jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan: Bilboko manifestazioa 11:30ean hasiko da, Jesusen Bihotza plazatik; Gasteizkoa eta Donostiakoa, berriz, 12:00etan hasiko dira, lehena Andre Maria Zuriaren plazatik eta bigarrena Alderdi Ederretik. Bi sindikatuek Espainiako Gobernuarekin pensio eta lan erreformen inguruan egindako akordioak nabarmendu dituzte.



Lan baldintza hobek, aberastasuna modu justuagoan banatzea eta pensiodunen eskaerei erantzutea eskatuko da aurtengo mobilizazioetan





Gutxienez 1.700 errenta aitorten euskaraz egitea lortu nahian



Apirilarekin batera errenta aitortena egiteko sasoi iristen da eta dagoeneko hainbat herritarrek kitatu dituzte Ogasunarekin dituzten zorrak edo alderantziz. Azken urteotan egindako kanpainari jarraipena emanez, Gipuzkoako Ogasunak errenta aitortena euskaraz egitea bultzatu nahi du eta, era berean, Eibarren Akebai plataformak hala egiteko eskatzen digu eibartarroi.

Errenta aitortena? Aurten ere, duda barik, euskaraz! kanpaina abiatu du beste behin Eibarren Akebai plataformak eta, horren bitartez, “euskaraz bizi nahi duten herritarrei errenta aitortena euskaraz egiteko gonbita egin nahi zaie”, plataformakoen berbetan.

Orain dela bost urte eman zitzaion hasiera kanpainari, hau da, 2017. urteko errenta aitortenaekin, eta datuek erakusten dutenez, kanpainak izan du eragina aitortena egiterako orduan aukeratzen den hizkuntzari dagokionez. Horrela, 14.195 eibartarrek egin zuten 2017. urteko errenta aitortena eta 1.280 lagun izan ziren Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz izan zitezela eskatu zutenak, hau da, kopuru osoaren %9; 14.234 eibartarrek egin zuten 2018. urteko errenta aitortena eta 1.402 lagun aritu ziren euskaraz Ogasunarekin (%10); 2019koan, 14.158 izan ziren aitortena aurkeztu zuten eibartarrek eta euretako 1.441ek egin zuten euskaraz (%10); 2020an, 14.035 errenta aitorten aurkeztu ziren Eibarren eta 1.494 (%11) izan ziren euskaraz; eta 2021.ekoan, 14.243 eibartarrek egin zuten errenta aitortena eta horietako 1.603 (%11) egin ziren euskaraz.

Datuek erakusten dutenez, urtetik urtera igo egin da Foru Ogasunarekin harremana euskaraz izan duten eibartarren kopurua eta, aitortena egin duten eibartarren kopuru osoa hartuta ere, portzentajea hazi egin da.

Eibarren Akebairen kanpaina



Erronkak Eibarren eta Gipuzkoan

Kanpainaren eragina nabarmena bada ere, eragileek anbizio gehiago dute eta are emaitza hobetoak lortu nahi dituzte urtetik urtera. Horrela, Eibarren Akebai plataformak 1.700 euskarazko errenta aitortenen

langa gainditu nahi du aurten. “Erronka hori lortzea gizarteak hizkuntza berdintasunaren alde egindako ahaleginaren sari bat litzateke”, diote plataformatik.

Gipuzkoako Foru Aldundia, ostera, beste kopuru batzuetan mugitzen da. 2020an lau urteko egitasmo bat abiarazi zuen, honako helburuarekin: 2023. urtearen amaieran Ogasunarekin euskaraz egitea aukeratu duten gipuzkoarren kopurua 100.000 lagunera iristea.

2023aren hasieran Gipuzkoan 87.826 herritarrek euskara aukeratuta daukate Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin harremanetan. Beraz, badago apustua.

Errenta aitortpena euskaraz, baina nola?

Hiru bide daude aitortpena egiteko eta guztietan erabil daiteke euskara: autolikidazio proposamena, mekanizatua eta Internet bidezkoa. Baina, nola aukeratu dezakegu euskara izapide horiek betetzeko? Eibarren Akebaik erraz azaltzen du: Adibidez, autolikidazio proposamena jasoz gero, onartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula besterik ez da esan behar. Errenta mekanizatua egiten baduzu, aitortpena egiteko ordua hartzerakoan edo bertan egiteko orduan, euskaraz egin nahi duzula esan bertako langileei eta kitto. Internet bidez eginez gero, Foru Ogasunaren Zergabidea plataforman, errenta programaren euskarazko bertsioa deskargatu eta hobetsitako hizkuntzen atalean euskara eskatu. Eta errenta aitortpena aholkularitza zerbitzuen bitartez eginez gero, esan euskaraz egin dezatela eta Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezela.

Ikusi daitekeen bezala, keinu txikiak eta sinpleak dira, eta ez da ezer berezirik egin behar.

Hiztegi lagungarriak

Errenta aitortpena egiteko orduan erabiltzen diren terminoak ezezagunak dira askorentzat, euskaraz zein gaztelaniaz, baina, ohituragatik edo, herritar batzuk gaztelerazko terminoak hobeto ezagutzen dituzte. Hori errenta aitortpena edo Ogasunarekin harremana euskaraz egiteko oztopo ez izateko, Eusko Jaurlaritzak eta UEMAK hiztegi bi jarri dituzte herritarren eskuera, eta <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/ogasunarekin-euskaraz-webgunearen-amaieran-aurkitu-ditzakegu>.



Urte amaieran Ogasunarekin euskaraz egitea aukeratu duten gipuzkoarren kopurua 100.000 lagunera iristea da helburua



Aitortpena euskaraz egiteko hainbat aukera daude.



Itziar Sapsootham

Barrikadaren bestaldean

Aste Santuko jai egunetan, ezagutzeko gogo handiak nituen Zuberoa eta Behe Nafarroan egun batzuk pasatu ditut. Motibazio nagusia, igandean Barkoxeko Maskaradak ikusi ahal izatea izan zen, eta bide batez, bertako lagun bat bisitatzea. Egun zoragarriak izan dira.

Aldez aurretik bizpahiru leku interneten fitxatu, furgoneta txikia (ejem, kotxea) prestatu eta pare bat ordutan han ginen. Hegoaldeko turista batzuk moduan, Irati, Harpeako koba, Holtzarteko zubia, La Vernako kobazulo ikaragarriak, Donibane Garazi, Maule... bisitatu ditugu; Irouleky-ko ardoak, Ricard eta Perroquet-ak edan ditugu eta axoa, gasna eta pateak dastatzeko aukera izan dugu. Barkoxera igandean heldu, Mauleko gazteen barrikadara gerturatu, kotxea hala moduz utzi eta hor joan ginen desfilean beste hainbat hegoaldetarrekin (nola ez, beste eibartar bat tartean zelarik). Xiberotarrekin egin genuen zintzür-büstitzea goiz hartan eta arratsaldeko ekitaldiaren ostean, taloa jan eta Barkoxtar gazteek kudeatzen duten ostatu-ttipian egin genuen besta.

Zoragarriena eta betegarriena, opor ia guztiak euskaraz egitea izan da. Esan behar dut: prejuizioz nindoan. Ezagutu ditudan Iparraldeko euskaldunek, haien egunerokotasunean euskaraz bizitzeko zailtasun asko dituztela transmititu didate beti. Hegoaldean ere gertatzen da, noski, baina egia da muga politikoaz bestalde arlo batzuetan egoera kaxkarragoa dutela. Hala ere, bidaia ia osoa euskaraz egiteko aukera izan dugu, upategiko bisita barne! Arabar Errioxako upategien zale amorratua izanik, inoiz ezin izan dut euskaraz bisita bat egin. Baigorri aldiz, lehenengoan. Euskara goxo, eder eta jantzi batean.

Eskerrik anitx Cedric, zure zelaian lo egiten uzteagatik. Iganteko bestaren bürühandia aiseago pasa genuen. Oporrak fite ürrentü ziren eta ezin düt egürükitu bueltatzea, egün gütti batzuk pü, eta prefosta, amini bat xibereraz ikastea eta erranaldi eskas hau hobekiago idaztea.

**“Eskerrik anitx
Cedric, zure zelaian
lo egiten uzteagatik.
Iganteko bestaren
bürühandia aiseago
pasa genuen”**



Manifestazioa Eibarren, 1930. urte inguruan. CENTRO DELA MEMORIA HISTORICA. SALAMANCA

Sindikatuaren funtzio nagusienak: hitzarmenak defendatzea, grebak egitea, maiatzaren 1eko manifestazioak antolatzea...

Sindikatuaren funtzioak eta manifestazioen lema

Roberto Aizpurua Legaristi
(1940)



Roberto Eibarren jaio zen 1940an. Hamalau urterekin, gubilista-mutil bezala hasi zen eta langileria eta klase-kontzientzia hartzen hasi zen. Hamazortzi urterekin UGT sindikatura afiliatu zen eta frankismo garaian klandestinoki nola biltzen ziren, zein ekintza egiten zituzten, propaganda nola banatzen zuten eta hainbat konturi buruz hitz egin du. Trantsizio garaian, lehen udal hauteskundeetako zinegotzia izan zen PSOE alderdiarekin batera. Garaiko erronka, zailtasun eta ilusioz hitz egin du.

Roberto Aizpuruari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Ze ekartzen zeben bihargiñek? Ze keja, ze kezka?] Reunixuak egitten ziran ta, bueno, gehixena zan konbenioak-eta defendatzia ta... Gero, bakotzak bere gauzak. Hasten ziran ba, *¿cuándo has tenido familia?* Ez dakit, galderak, danak, konbenioan zer jartzen zeban eta. Baiña, bueno, konbenioak, eta huelgak ta, danerakuak (...). Hortxe, salsa hortan. Manifestaziñuak, *Primero de Mayo*... horixe zan, pixkat, gure jarrera orduan. [Ze lema edo?] Lemak? Bueno, beti izaten ziran, ez dakit, *Primero de Mayo* lema diferentziak, igual, urte batetik bestera. Ze kondiziño billau bihar zan aurretik, orduak, ordu ekstrak... gauza asko.

Lanbide Heziketan ere euskaraz

Aste honetan egin dira Ate Irekien jardunaldiak Armeria Eskolan eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeetan. Bata zein bestea Lanbide Heziketako ikastetxeak dira, eta prest daukate datorren ikasturterako eskaintza. Zehazki, maiatzaren 8an hasiko da matrikulazio-epaia, eta aukera ezinhobea iruditu zaigu euskaraz Lanbide Heziketan daukan lekuaz hitz egiteko. Horretarako, Oskar Gisasola UNI Eibar-Ermuko zuzendaria eta Imanol Urreisti Armeria Eskolako zuzendaria bildu ditugu.

Elkarriketa
bidean ikusteko:



Lanbide Heziketa izenak dioen bezala, lan-munduari zuzenduta dagoen hezkuntza mota da eta, horregatik, askotan eraldatzen joan da lan-mundura egokitzeko. Hego Euskal Herrian, gaur egun, Oinarritzko Lanbide Heziketaz gain, bi ziklo daude: Erdi Mailako heziketa zikloa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoren, eta Goi Mailako heziketa zikloa, Batxilergoaren ondoren. Eibarren izen handiko bi ikastetxetan eskaintzen dituzte Goi eta Erdi mailako zikloak: Armeria Eskolan eta UNI Eibar-Ermuan.

Laster, maiatzaren 8an, hasiko da matrikulazio-epaia, eta euskaraz Lanbide Heziketan duen osasuna ezagutzeko jo dugu ikastetxeetako zuzendariengana. Eibarren eskaintzen diren zikloetan euskarazko eskaintza egon badago. Hala ere, ziklo batera iristen direnean, gazte

askok gaztelaniaz ikastea erabakitzen dute, nahiz eta euskaraz ikasi duten beti. Hori ikusita, ikastetxe bietan apostu handia egiten dihardute Lanbide Heziketa eskalduntzearen alde. "Gizartearen parte gara eta gizarte euskaldun batean bizi nahi dugu; hortaz, gure gure ekarpena egin nahi dugu", diote Armeria Eskola eta UNI Eibar-Ermuko ordezkariak.

Azken urteotan euskaraz Lanbide Heziketan izan duen eboluzioari buruz galdetu diegu. Imanol Urreisti Armeria Eskolako zuzendariak dioenez, "bost urte atzera egiten badugu eskalduntzearen aldeko joera bat egon da. Armerian eskaintza beti izan da elebiduna. Urte batzuetan euskarazko matrikulazioa igo zen eta kuota bat hartu zuen (heren bat baino gehiago, erdira hurbiltzen zen), baina momentu honetan estankatuta dagoela esan daiteke. Gure

kasuan, erdi eta erdi, edo erdia baino pixkat gutxiago dago euskaraz matrikulatuta eta erdia baino gehiago gaztelaniaz, nahiz eta, esan bezala, eskaintza bi hizkuntzetan daukagun".

Antzerako bilakaera izan dute UNIn, baina bidea desberdina izan dela dio Oskar Gisasola ikastetxe zuzendariak: "Orain dela lau urte gure eskaintzaren %60 edo 70 erdara hutsean zen eta %30 euskaraz, eta hori aldatzen joan da azken urteetan. Orain buelta eman diogu horri, eskaintzaren %70 euskara hutsean daukagu, %10 elebidun eta %20 gaztelaniaz. Eta matrikulazioa datu horietan ibiliko da".

Zer egiten da euskara bultzatzeko?

Ikastetxe bietan euskararen erdua indartzeko apostu handia dago. "Baina ez bakarrik ikastetxe moduan, Lanbide Heziketako Sailburuordetatik ere argi dago D



Oskar Gisasola UNI Eibar-Ermuko zuzendaria eta Imanol Urreisti Armeria Eskolako zuzendaria. ANAAIZPURUA

eredua indartzeko jarrera dagoe-
la, ikastetxeetan eta baita lantoki-
kietan ere, ezin dugulako ahaztu
gure ikasleak Prestakuntza Duala
egiten dutela, hau da, euren formakuntzaren zati bat enpresetan
egiten dutela. Lantokietara joaten
direnean formazioa euskaraz eta
ingurune euskaldun batean egitea
da helburua", dio Urreistik.

Euren esku dauden gauza asko
egiten dituzte euskarazko eredua-
ren aldeko jarrera sustatzeko. Os-
kar Gisasolak azaldu digun mo-
duan, "ekintza desberdinak egiten
hasi ginen orain dela urte batzuk.
Esate baterako, aurrematrikula sa-
soian Eibarko eta Ermuko gazteen
artean Lanbide Heziketa euskaraz
ikasteak dauzkan abantailak azal-
tzen dituen kanpaina egiten dugu,
bi Udalek lagunduta. Hor azaltzen
diegu zein onurak dituen Lanbide
Heziketa euskaraz ikasteak".

Eta zeintzuk dira abantailak? Erdi
Maila euskaraz egiten dutenek B1

>>> UNI Eibar-Ermuan eta Armeria Eskolan apostu handia egiten dihardute Lanbide Heziketa euskalduntzearen alde

titulua lortzen dute; Goi Maila egi-
ten dutenek, berriz, B2 titulua es-
kuratzen dute. Bestalde, adminis-
trazio publikoan gero eta gehiago
baloratzen da euskarazko gaitasuna
izatea lanpostu bat lortzeko. Ere-
mu pribatuko enpresetan ere gauza bara-
gertatzen da: "Laneratzeko orduan,
euskara menperatzea eta egunero-
kotasunean jarduteko gai izatea plus
bat da", dio Imanolek.

Horrez gain, enpresetara prak-
tikak edo Duala egitera joaten di-
renean, enpresarekin eta prak-

tiketako tutorearekin daukaten
harremana euskaraz baldin bada
curriculumean edo entregatzen
zaien ziurtagirian Hezkuntza Sai-
letik sortu berri duen zigilu berezia
jartzen zaie. "Zigilu horrek adie-
razten du enpresara joan direnean
praktiketako epe hori euskaraz ari-
tu direla", dio UNiko zuzendariak.

Erakundeekin elkarlanean

Erakundeekin harremana oso ga-
rrantzitsua dela uste dute, "eus-
kararen aldeko mezu hau indar-
tze aldera". Udalekin elkarlanean
aritzen dira etengabe. "Adibidez
atzeritarren kolektibo bat dau-
kagu, aurreko etapetatik pasatu ez
direnak eta euskararekin inongo
harremanik izan ez dutenak. Erda-
razko talde batean matrikulatzen
dira horiek, baina gure asmoa bada
gizarteratze horretan laguntzea
eta, jakina, euskara gizarteratzeko
oso tresna garrantzitsua da. Zen-
tzu horretan, euren formakuntza

prozesuan euskara txertatu egin dugu, oinarritzko gauza batzuk ikasi ditzaten", azaldu digute.

Euskarazko materiala

Euskarazko materiala sortuta dagoela eta gero eta gehiago erabiltzen dela dio Oskarrek. "Gure kasuan, orain dela bost urte gaztelaniaz eskaintzen ziren ziklo batzuk orain euskaraz eskaintzen dira, eta, beraz, material berria sortzen joan gara. Hezkuntza Saitetik ere laguntza handia daukagu. Sortu egin behar dira, baina esango nuke modu naturalean egiten ari dela", esan du.

Imanol ados dago Oskarrek esandakoarekin: "Are gehiago, lehen gaztelaniaz zegoena euskaratu egiten genuen, baina gaur egun, hain azkar gertatzen ari diren aldaketa teknologikoekin, zuzenean euskaraz sortzen ari gara material asko, erdibideko pauso hori eman gabe. Eboluzio teknologikoa arin joatea, beraz, motibagarria da euskara lehenengo plano horretara ekartzeko. Dinamika egokia dago eta ez dago inolako arazorik gaur egun hezkuntza prozesua euskaraz egiteko".

Zalantzarik ez dago azken urteetan aldaketa handiak eman direla Lanbide Heziketan, oro har, eta baita euskarari dagozkion aspektuetan ere, eta eboluzio horretan irakasleagoa eta ikastetxeetako barne funtzionamendua ahaztu ezin diren faktoreak dira. "Lehen irakasleek gaztelaniara jotzen zuten, eta hori aldatzen joan da. Lanbide Heziketako irakaslegoaren eskalduntzeak sekulako gorakada izan du azken 10 urteetan, ezagutzari eta jarrerari dagokionean. Gainera ikastetxe barruan dagoen dokumentazio guzti-guztia euskaratuta dago. Azkenean gauza batek bestea dakar", diote.



Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloak eskaintzen dituzte Armerian eta UNIn. ANAIZPURUA

>>> Euskarak balio erantsia dauka eta, hala ere, batzuk eten moduko bat egiten dute Lanbide Heziketara salto egiten dutenean

>>> Lanbide Heziketan euskaraz ikasi ahal izateko behar diren egitura eta baliabide guztiak daude

Haizeak euskararen alde egon arren, oraindik gazte batzuei kostatu egiten zaie euskarazko eredia aukeratzea. Imanolek dioenez, "egitura sendoa dago DBHtik edo Batxilergotik irteterakoan ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko. Lehen esan dugun moduan, euskarak balio erantsia dauka, eta, hala ere, batzuk eten moduko bat egiten dute Lanbide Heziketara salto egiten dutenean. Askoz erosoago sentitzen dira erdaraz, euren eguneroko bizimodua ingurune erdaldunean egiten dutelako (familia, lagunak...)"

Imanolek esandakoaren harira, Oskarrek gehitu du ikasleek Lanbide Heziketara salto egiten dutenean eskaintza hori eskualde mailara

pasatzen dela: "Ikasle asko euren herritik mugitzen dira. Eskualde desberdineko ikasleak etortzen dira guregana, eta horrek ere asko baldintzatzen du. Herri euskaldun batekoa baldin bazara ez zaizu kostatuko euskaraz egitea, baina herri erdaldunago bateko ikasleak bere burua erosoago sentituko du erdarazko ziklo batean, nahiz eta ikasketak euskaraz egin dituen".

Gauzak horrela, euskarazko erdia gehiago indartzeko zer egin daitekeen galdetu diegu. "Euskara balioan jartzen jarraitu, gure hizkuntzaren aldeko apostua egiten jarraitu eta ibilbidea euskaraz egiteko egitura guztia eta baliabideak hor daudela erakutsi", diote.

AUTOEN GEHIGARRIA

2023ko apirila

Motorrak ondo funtzionatzeko kontuan hartu beharrekoak

Jarraian zenbait aholku emango dizkizugu, motorraren mantentze-lanak egiteko eta funtzionamendu hobea lortzeko.

- Aldatu bujiak eta kableak

Bujiaren kablea oso elementu garrantzitsua da autoen motorren funtzionamenduan. Isolamendu altua izan behar du, korrontehesak saihesteko, eta, gainera, tenperatura altuei, eroanbidean sortutako bibrazioei eta hezetasun-maila handiei aurre egiteko. Beraz, bujiak eta gastatutako kableak aldatzean, elektrizitatea arazorik gabe garraiatuko da.

- Ez azeleratu eta gelditu

Egia da motorrakabiadura handia hartzeko egin zirela, baina askoz ere funtzionamendu egokiagoa dute modu konstantean lan egiten dutenean. Ez da ona etengabeko geldialdiak eta abiatzeak izatea, motorra higatu egiten baita eta, epe ertain batean, funtzionamendu egokia galtzen baitu. Abiadura konstantea mantentzea litzateke egokiena higadura hori saihesteko, eta, bide batez, gasolina gutxiago kontsumituko duzu.

- Saiatu erregaiaren iragazkia ordezkatzan

Gutako askokez dugu pentsatzen zer gertatzen den gasolina-iragazkiarekin; ibilgailuaren barruan usain fuertea sentitzen dugunean bakarrik pizten da alarma. Gasolina, askotan,



partikulaz edo gure motorrari eragiten dioten zikinkeriz betetzen da. Iragazkia edo filtroa aldatzen badugu, erregaia garbi egongo da, eta motorrak errazago erreko du erregaia.

- Saiatu barneko taulako argien jarraipena egiten

Kotxe barruko argiak gure ibilgailuaren diseinua apaintzen duen zerbait bezala bakarrik ikusten ditugu gutako gehienok, baina hortik harago, oso garrantzitsua da seinale bakoitzak zer esan nahi duen jakitea. Edozein argi piztuz gero, adibidez, bateria, olio-presioa edo motorraren tenperaturarena, hobe duzu autoa mekanikoarengana eramatea, horrela mesede bat egingo diozu zure motorrari.

- Saiatu erregai-tanga kargatzen gutxienez iritsi baino lehen. Kontua da gasolinak sedimentuak dituela, pixkanaka-pixkanaka finkatuz doazenak, eta urteak igaro ahala, tankea askotan bete ondoren, horiek lodi metatzen dira, eta orduan dator arazoa. Gutxienez gasolinarekin ibiltzen ari garenez, gure motorra hondakin horiek xurgatzen hasten da, eta, azkenean, barne-kaltea eragiten diote.

- Saiatu itoginik ez dagoela berrikusten

Ez da aditua izan behar zure autoa tantaka ari dela ohartzeko, usainagatik edo zure garajeko zorua zikinduta uzten duelako. Azken hori oso maiz gertatzen da. Iragazketa horiek, batez ere, olio edo hozgarriarenak izaten dira. Saia gaitezen ikusten mahukak edo mangerak zaharrak diren edo jarioaren bat dagoela adierazten duten zirrikituak dituzten, hala bada eta likido horiek maila egokian ez badaude, motorrak higadura izango du eta, ondoren, kalteak.

- Saiatu olioaren erregulartasunez aldatzen

Hori da, beharbada, gure motorraren zaintzarako alderdi garrantzitsuenetako bat, olioaren aldatzeak, maiz, haren zatiak ondo lubrifikatzea ahalbidetzen baitu. Bestalde, gehiegi berotzea eta higatzea ere saihestuko du.

Noiz jarriko dira triangeluen ordeztuak V-16 argiak?

1999an istripuak seinaleztatzeko triangeluak indarrean jartzeak aurrerapen handia ekarri zuen bidean larrialdiko geldialdi baten ondoriozko ezbeharrak saihesteko orduan, ibilgailuaren eta bidaiariaren ikuspena hobetuz. Konponbide horrek, eraginkorra izan arren, eraginkortasuna galtzen du ikuspen txikiko baldintzetan (gaua, lainoa, euria, etab.), eta, 2021. urtearen erdialdean, DGTk iragarri zuen neurria aldatu egingo zela, triangeluen ordeztuak V-16 argi homologatua jarritz.

V-16 argia gailu zirkularra da, ibilgailuaren sabaian edo alboan jartzen den argi-seinale bat igortzen duena, eta gidariari autotik ez jaitea ahalbidetzen dio, harrapaketak gutxitzeko. Honek laranja koloreko distira birakari biziak igortzen ditu, sirena baten antzekoak, bideko gainerako ibilgailuei matxura edo istripu baten berri emateko. Jakina, urarekiko erresistenteak izan behar dute, eta iman bat izan behar dute autoan lotzeko. Ikuspen urriko baldintzetan, kilometro bateko distantziara ere ikus daiteke, batera-iraupena bi ordu ingurukoak izanik, eta kokapen zehatza izateko aukera ematen duen geolokalizadorea ere badu.



Geolokalizazioa duten argi horiei esker, istripuaren koordinatuak partekatu ahal izango dira, eta seinale bat igorriko da 100 segundotik behin.

V-16 argia eta triangeluak elkarrekin bizi dira 2021eko uztailaren 1etik, baina horien behin betiko aplikazioa 2026ko urtarrilaren 1erako espero da. Egun horretatik aurrera auto guztietan eraman beharko dira.

MAK Matsaria, 2
3 Pabilioia
CARROCERIAS -Eibar-

Pintura (labean lehortua) Txapa
Neumatikoak Mekanika

943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791

AUTO KONPONKETAK
AURRERA

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantentimendua - Erroberak

Urtzaille, z/g Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

Konfidantzako zure konponketa lantegia, zentroan kokatuta.

Talleres Caño

943 53 08 70
Uburra 2 | Armagin 8



Garbitzeko orduan...

Garbiketaren eta garbiketaren artean, orbanak eta urradurak ager daitezke. Batez ere zure autoak gauak eta egunak aire zabalean ematen baditu. Kasu horietan, urteko urtaro bakoitzean autoa garbitzea gomendatzen da, karrozeriari argizaria aplikatuz, ahalik eta gehien babesteko.



Leihatilak eta kristalak dira garbituko ditugun azken elementuak. Kristal-garbitzaile on bat erabil dezakegu (hobe amoniakorik ez badu), eta, behin esponja batekin igurtzita, produktu guztia oihal batekin kendu dugula ziurtatu. Garbiago uzteko, egunkari-paperarekin lehortu dezakegu gainazala.

Karrozeria garbitzera pasatu aurretik, gurpilak eta haguak edo llantak dira lehenak. Azken horietarako merkaturan dauden produktu ugariatako bat erabil dezakegu, baina zenbat eta azido gutxiago izan, orduan eta hobeto, azidotasanak haguak distira edo kolorea galtzea eragin baitezake.

Distrakzioak, istripuen eragile

Telefono mugikorrek, GPSek edo bestelako distrakzioek gero eta istripu gehiago eragiten dituzte, eta trafiko-istripuen arrazoi nagusietako bat dira, arreta galtzen baitugu errepidean eta inguruan. Gainera, isuna jaso dezakegu gidatzean gailu horiek behar ez bezala erabiltzeagatik. Gogoan izan behar dugu praktika horrengatik puntu-galera 3 puntutik 6ra igo dela gidabaimenean.

Arreta galtzen dugun tarte hori nahikoa izan daiteke istripu bat eragiteko: errepidetikirtetea, arriskurik ez ikustea edo ustekabeko baten au-

rrean geldiarazteko astirik ez ematea. Horregatik, ibilbidea GPSan edo mugikorrean programatu dezakezu irteera hasi aurretik, eta ibilbidea birprogramatu behar izanez gero, horrelako geltokietarako egokitutako guneren batean gelditzea gomendatzen dizugu, atsedenleku batean, esaterako. Bolantean beste distrakzio mota batzuk atsedenaldira txar batek, nekeak edo hidratazio faltak eragin ditzake. Horregatik atsedenaldira maiz egitea gomendatzen da, indarberritzeko eta hidratatzeko.



SUMENDIXA GOIKUA S.L.

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

943 82 04 49

688 871 717

lurzuri@mapfre.com

MAPFRE
teCuidamos



**ARGABA
GESTION, S.L.**

Auto-aparkalekua eta
etxebizitzak **ALOKAGAI**

Urtzaila, 1 (Aurrera eraikina)
943 206 383 / 672 338 993

Urtzi Antxustegi (688 649 837)

09:30 - 19:00

EROSKI-n

garbibox
auto-garbiketarako
limpiatze-vehiculos

ZERBITZU BERRIAK: sabai edo tetxu-konponketak,
tapizatu-konponketak, etxeko garbiketarako une zehatzetan...



Altuna eta Elordiren artekoa Astelenan etzi

Hilaren azken egunean pilota profesionaleko jaialdia hartuko du Astelenak, tartean buruz-buruko txapelketa nagusiko finalaurdenetako partiduarekin. Katedralean izango den jaialdiaren partidu nagusiak aurreko jardunaldiko irabazleen artekoa jasoko du, Jokin Altuna eta Aitor Elordi protagonista bihurtuz. Aurretik, jaialdia hasteko, Ezkurdia-

Eskuza eta Pello Etxeberria-Martija bikoteen arteko norgehiagoka eskainiko du; partidu horretako aurrelari biek hortik zortzira euren artean jokatu beharko dute zeinek egiten duen aurrera, buruz-burukoaren finalerdietara pasatzeko. Jaialdiko azken partidua honakoa izango da: Victor-Ugartemendia vs Zubizarreta III-Arbizu.

Kalamuako judokak 11 borrokatik bederatzitan garaile Gipuzkoakoan

Aurreko domekan Errenterian jokatutako alebin mailako Gipuzkoako Txapelketako bigarren fasean, bertan izandako Kalamua klubeko



hiru ordezkariek emaitza bikainak lortu zituzten: Andoni Hurrak jokatutako lau borrokatik irabazi zituen, Julen Martinek lehenengoa galdu eta beste hirurak irabazi zituen eta, azkenik, Aner Gonzalezek bat galdu eta egindako beste biak irabazi zituen. Lehen fasean lortutako emaitzei azken horiek gehituta, Hurrak eta Gonzalezek maiatzaren 27an jokatuko den finalerako txartela eskuratu dute. Martinek, bestalde, hurrengo egunean, domekan, egingo den Gipuzkoako Kopa jokatuko du. Bezperan ere alebin maila bereko nesken finaletan izango dira baita Kalamuako Sara Azpiazu eta June Valladares ere.

Bi atleta gaztek debutatu zuten Jaz Triatloiarekin Zizurkilgo duatloian

Esprint distantzian jokatzen den Zizurkilgo duatloian izan zen debut hori eta triatleta biek oso postu onak eskuratu zituzten, lasterketa bikaina egin ondoren. Ugaitz Gartzia laugarren izan zen bere mailan eta Iñigo Gaston hamargarren. Eurekin izan zen parte hartzen baita Roberto Gartzia ere, eta V2 mailako Euskadiko Txapelketako podiumera (4. maila) igo eta segundo bakarrera geratu zen. Bestalde, Jonatan Alustizak 05:09:04ko denbora egin zuen Half Peñíscola osatzeko. Erdi Ironmaneko distantzian jokatutako proba horretan 426. postuan helmugaratu zen, parte hartu zuten 900 triatleten artean. Asteburu honetan, azkenik, taldeko hainbat kidek Azkoitiko Duatloian hartuko dute parte.



Ezkerretik hasita, Iñigo Gaston Gorrotxategi eta Ugaitz eta Roberto Gartzia.

Eibar FT-k denboraldiko lehen titulua lortu du Futbol 7 Ligarekin

Espero dezagun beste batzuk ere lortzea, hainbat mailatan borrokatzen diharduelako gure herriko foball-klubak helburua lortu eta igotzeko ahaleginean. Hori da SmartBank Liga (gizonezkoen talde nagusia), 1. Federazio Maila (emakumezkoen talde nagusia),

3. Federazio Maila (Vitoria filiala) eta Lurrealdeko Ohorezko Mailaren (Eibar Urko) kasua, beste batzuen artean.

Oraingoan, horren guztiaren aurrekari, Cacereseko Navalmoral de la Matan jokaturako garuneko paralisia dutenentzat antolatutako

Espainiako Futbol 7 Ligako azken fasean, Eibar FT-k aurreko bidetik jo du eta, denboraldia partidurik galdu gabe amaitzeaz gain, txapela ere jantzi du azken play-offean. Zapatuko finalerdian AMDDA Malagari 3-1 irabazi ondoren, domeka eguerdiko finalean Andoni Igartua entrenatzaileak prestatutako taldea 2-1 nagusitu zitzaion finalean Hercules Paralimpico taldeari. Partidua amaitzera zihoanean, luzapenerako minutu batzuk besterik geratzen ez zirenean, lortu zuen Eibar FT-k bigarren gola, erabakigarria izango zena. Hori bai, jokoaren pisu handiena eibartarrek izan zuten denbora gehienez. David Gamiz, Josue Almeida eta Ibai Goikoetxea izan ziren finalerdiko goleatzaileak eta Gamiz bera eta Yerik Martinez finalekoak.



Urbat Urkotronik EH Ligako finalerako sailkatu da berriro ere

Gure herriko waterpolo klubeko senior mailako lehen taldeak 9-11 irabazi zion Wp9802 taldeari Euskal Herriko Ligako itzulerako partiduan eta, emaitza horrekin, Askartza B- ren aurka izango da Ligako finalean. Azken garaipen horretan eibartarrek prestakuntza fisiko bikaina dutela erakutsi zuten, atsedendian 7-3 galtzen zuten partiduari buelta ematea jakin izan zutelako bigarren zatiko 2-8ko partzialarekin.

Senior mailan ere, baina emakumezkoen taldearen kasuan, horiek finalerditik kanpo geratu ziren, Santoñarekin berdindu ondoren, penaltietan 16-17 galdu eta gero. Orbeakoek beste partidu bat ere jokatu zuten, Askartza indartsuaren aurka, 5-18 galduta ere “etorkizunera begira ondorio aberatsak



Atsedendian 7-3 galtzen ari zen partidua iraultzeko gai izan zen Urbat, 9-11 irabazteko.

ateratzeko” balio izango diena. Partiduaren azken uneetan behera egin zuten gizonezkoen bigarren taldeak, bestalde, 13-12 galdu zuten Nautica Portugalete B-rekin.

Haur Mailako Euskal Herriko Ligan, azkenik, Urbat Urkotronik-ek eta Leioak seina berdindu zuten, azkenean penaltietan (8-9) eibartarrek galtzaile izan baziren ere.

Gomez eta Odiaga bolariak Gipuzkoako Txapelketaren gorengoan daude ihesi eginda

Leintz-Gatzagako bolatokian jokatutako txapelketa horretako seigarren jardunaldiaren ondoren, Asola Berriko Pedro Gomezek lidergoa berreskuratu du (24 txirlo), orain arte hor zegoen San Andreseko Lander Odiagari (23) txirlo bateko alde ateratzeko. Bikote horrek aurrera eginda, hirukote bat dute gertuen, liderrarengandik bost txirlorra, 19rekin: Eibarko bolatokiko Gari Rodriguez eta Bittor Astigarraga daude hor, San Migueleko Jabier Osororekin batera. 18 txirlo ditu Imanol Osorok (San Miguel), 17 Bittor Ugarteburu eibartarrak



eta 16 Floreagako Gorka Etxanizek. Leintz-Gatzagan 57 bolari izan ziren parte hartzen eta, Garmendipeko Iñaki Caballero izan bazen ere onena sei txirlorerekin, bostekin Asola Berriko hirukote batek, Juan Luis Rodriguez, Bittor Astigarraga eta Pedro Gomezek osatutakoak, jarraitu zion.

Sailkapen nagusitik kanpo, bestelakoetan ere eibartarrak oso ondo kokatuta daude. Horrela, Gomez onena da baita beteroetan ere,

Ione Perales eta Olaitz Rodriguez emakumezkoen mailako buru dira (Aretxabaletako Isana Gorosabelekin berdinduta), bikoteka Asola Berriko Bittor biek (Astigarraga eta Ugarteburu) agintzen dute eta, azkenik, taldeka Asola Berri A-k jarraitzen du gorenean, San Miguel A bigarrena 16 puntura dutela.

Zapatu honetan ez da tiraldirik izango, eta 7. jardunaldiko hurrengo Soraluzeko Ezozin jokatuko da, maiatzaren 6an.

Eibar FT-ko 9. Udako Campuseko plazak egun batean agortu dira

Ekainaren 26tik uztailaren 15era arte iraungo duen Udako Campus horretan parte hartuko dutenek martitzenean izena emateko epea zabaldu eta egunean bertan bete zituzten toki guztiak. Udako Campusaren bederatzigarren edizio hau 2011 eta 2014 urteen artean jaiotako haurrei zuzenduta dago. Ur-

tero bezala, SD Eibar Fundazioak balioetan oinarritutako hezkuntza, futbola, dibertsioa eta ingelesaren ikaskuntza sustatu nahi ditu kanpus honekin, eta euskara izango da irakashizkuntza. Futbol entrenatzaileek, ingeles irakasleak eta pedagogoez osatutako profesional talde batek gidatuko ditu saioak

Ipuruako Eranskin zelaiko instalazioetan. Parte hartuko duten haurrek ingurumena zaintzen ikasteko aukera izango dute aurten, programatutako jarduera batzuen bidez. Txandak, astelehenetik zapatara, ekainaren 26an, uztailaren 3an eta uztailaren 10ean izango dira. Orduetgia 09:00etatik 14:00etara izango da.

Campuseko inskripzioak honakoa hartzen du barruan: janzkera teknikoa (prakak, kamiseta eta galtzerdiak), hamaiketakoak, entrenamendu- eta teknifikazio-saioak, ingurumenaren zaintzarekin eta iraunkortasunarekin lotutako jarduera eta, azkenik, ohitura osasungarri eta nutrizioaren garrantziari buruzko jarduera.



Eibar Rugbyk harro egoteko moduko Ohorezko denboraldia egin du

Ohorezko 1. Mailan jokatzeko duen emakumezkoen Eibar Rugby Taldeak aurreko domekan esan zion agur denboraldiari Liga irabazi duen Sevillako Corteva Cocosen zelaian 26-12 galduz. Patricia Guntinek prestatzen duen taldeak bigarrenen lortu du lauko play-offean sartzea, hau da, estatuko lau klub onenen artean sailkatzea. Sevillako krokodiloak Eibarko putreak baino gehiago izan baziren ere, armaginek oso ondo borrokatu zuten, batez ere partiduen bigarren zatian,



eta zail jarri zizkieten gauzak gaur egungo txapeldunei. Partiduan aurrea hartu zuten andaluziarrek hasieratik, nahiko erraz (21-0), baina

gero ondo erantzun zieten Cristina Guntinen neskek, nahiz eta ezin markagailua irauli. Beraz, Corteva Cocos Rugby jokatu du finala eta CR Majadahonda izango du aurkari, azken hori Crealia El Salvador taldeari nagusitu eta gero.

Eibarko klubak babeslen laguntza eskertzen du: One Tenneco, Jon Ander, Kultu, Infosec, Cartonajes Eibar, Azkonizaga, Talleres Caño, Taes, Gaurve, Guridi, Excavaciones Bergaretxe, Ane Mendia Fisioterapia, Kirolgi eta Eibarko Udala.

Mecalbe Eibar Eskubaloiak 4. postuan amaituko du Liga



Aurreko zapatuan, Ipuruan goitik behera kontrolatu zuen partiduan, 1. Nazional Mailako Mecalbe Eibarrek 32-27 irabazi zion Tarazonari eta, horrela, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, sailkapeneko laugarren postuaz jabetu dira dagoeneko. Lehen ordu laurdenaren amaieran markagailuak erakusten zuten 10-4koak berehala eskaini zien aginte-makila Fernando Fernand-

zen mutilei eta ez zuten berori laga partidu guztian. Jon Barruetabeña izan zen, aurreko asteburuan bezala, gol gehien lortu zituen, Iirekin, eta Andoni Yarzaren zazpiak eta Garikoitz Viguerearen bostak gehituta, hiruren artean taldearen gol gehienak eskuratu zituzten. Denboraldia amaitzeko falta diren bi jardunaldietan, Mecalbek Uharteri egingo dio bisita eta Trapagaran hartuko.

<p>FUNEUSKADI Funeraria Mugica</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraria</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xisillon, s/n. SIGMA Industriaidea (Otasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Izadi

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURALETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
FERRAMUAK

Enkarguak etxera

San Andres Gozotegia

• tartak
• enkarguak
• etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Kirol-taldeak eta gimnasioak nor baino nor kilometro gehien egiteko

Eibarko Udalak eta Azitaingo poligonoan egoitza duen Wellk startup-ak indarrak batu dituzte berriz ere 'Eibar Antxitxika' erronkaren bigarren edizioa antolatzeko. Iaz egin zuten ekimenarekin alderatuz, ostera, berritasunak aurkeztuko dituzte aurtengoan. Izan ere, lehia taldeka egingo da eta herriko 11 kirol-talde eta gimnasio ibiliko dira lehian, edonork parte ahal izango duen arren.

Eibartarren artean jarduera fisikoa sustatzeko eta herriko kirol-talde eta gimnasio ezberdinetako pertsonen arteko interakzioa bultzatzeko asmoz, Eibarko Udalak 'Antxitxika Eibar: Klubak' erronka antolatu du Wellk startup-arekin batera.

Erronkan herriko 11 kirol-taldek eta gimnasiok hartuko dute parte eta bete behar duten helburua sinplea da: jarduera fisikoa eginez, klubetako kideek ahalik eta kilometro gehien egitea. Hau da, parte-hartzaileek klub baten izenean hartuko dute parte eta egiten dituzten kilometroak klubaren kilometro kopuruari gehituko zaizkio.

Hori bai, erronkan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango kirol-taldeetako kidea, gimnasioetako bazkidea edo eurekin harremana edukitzea, edonork har baitezake parte klubaren kodea erabiliz.

Hauk dira erronkan parte har-

tuko duten 11 klubak eta gimnasioak, eta Wellk aplikazioan talde hauen izenean parte hartzeko erabili behar diren kodeak: Eibartarrak Futbol Taldea: EIBARTARRAK; Eibarko Klub Deportiboa: DEPORTIBOA; Ttatt gimnasioa: TTATT; Club Deportivo Urki: URKI; Eibar Rugby Taldea: RUGBY; Arima Galduak Jigger: ARIMAGALDUAK; Urbat Waterpolo Kirol Elkartea: URBAT; Crossfit Eibar: CROSSFITEIBAR; Bali Eibar: BALIEIBAR; Go Eibar: GOEIBAR eta Inda gimnasioa: INDA.

Nola hartu daiteke parte?

Wellk-ek bere webgunean (<https://wellk.eus/eu/antxitxikaieibar-2>) pausoz pauso azaltzen du zer egin behar den erronkan izena emateko eta parte hartzeko, baina hurrengo lerroetan laburbilduko dugu jarraitu beharreko bidea.

Informazio gehiago
WELLK-en webgunean:



Lehenik eta behin, telefono mugikorrean Wellk aplikazioa deskargatu behar da well.eus webgunea, edo App Store edo Play Store erabiliz.

Bigarren pausoa zure Wellk aplikazioan zure burua erregistratzea da. Horretarako, pantailan agertzen diren jarraibideei heldu behar zaie, galderak osatu eta, ondoren, aplikazioa pertsona bakoitzaren gustuetara ahalik eta gehien pertsonalizatu.

Erregistratu ondoren, egin beharreko hirugarren gauza zure kluba edo gimnasioa aukeratzea da. Hau da, egingo dituzun kilometroak zein taldek pilotzea nahi duzun erabakitzea. Horretarako, orri nagusian, erronken ikurra sakatu behar da (kopatxo baten itxura duena), taldeak atalean 'Taldea batera batu' sakatu eta, bertan, lehen aipatutako kodeak sartu behar dira bat egiteko.

Hurrengo pausoa literala izango da, hori baita erronkaren helburua, ahalik eta pauso gehien ematea. Aplikazioari zenbat pauso egiten dituzun jakinarazteko hiru modu daude. Batetik, Wellk aplikazioari esan ahal diozu ariketa fisikoa egitera zoazela eta berak GPSa aktibatu eta egindako kilometroen kontaketa egingo du. Horretarako, beheko menuko '+' ikurra sakatu behar da, hurrengo pantailan 'GPS bidez' aukeratu, egingo duzun kirola zehaztu (paseoa, txakurra paseatzea, korrika, martxa nor-



Erronka atzo hasi zen eta maiatzaren 25era arte egongo da martxan

Herriko 11 kirol-taldek eta gimnasiok hartuko dute parte, eta parte-hartzaileek noren izenean parte hartuko duten erabakiko dute

Wellk-en aplikazioa erabili behar da kilometroak kontatzeko, baina Strava eta Fitbit bezalako aplikazioak sinkronizatu daitezke



dikoa, mendi ibilaldia, bizikleta...) eta, martxan jarri behar zarenean, 'play' sakatu. Amaitzerakoan, ostera, 'pause' eman, gero 'bukatu', 'gorde' eta kitto.

Bigarren aukera egindako kilometroak eskuz sartzea da. Eta hirugarrena, Strava, Fitbit eta horrelako aplikazioetan jasotakoa Wellk-era bidaltzea. Izan ere, askok aplikazio hauek erabiltzen dituzte euren kirol-jarduerak erregistratzeko eta, horrela bada, aplikazio horietan jasotakoa Wellk-ekin sinkronizatu daiteke. Horretarako, Wellk aplikazioaren orri nagusian, gure profilararen atalera joan behar gara (pertsona baten itxura duena); bertan, tresnen atalean sartu behar da; eta han, nahi ditugun kontuak sinkronizatuko ditugu bertako pasahitz eta erabiltzailea erabiliz.

Hasierako ekitaldia eta sariak

Atzo eman zitzaion hasiera erronkari eta maiatzaren 25era arte



Kilometro gehien pilotzen dituen klubak 250 euroko saria jasoko du Eibarko Udalaren eskutik

egongo da kilometroak egiteko aukera. Horrela, hasiera emateko, ekitaldi berezia egin zuten Untzagan. Parte-hartzaileak klubetako elastikoak jantzita joan ziren erronkaren lehen kilometroak herriko kaleetan barrena egitera eta zenbait sari banatu zituzten.

Atzoko sariez gain, erronka amaitzen denean sari gehiago banatuko dituzte. Horrela, kilometro gehien pilotzen dituen klubak 250 euroko saria jasoko du Eibarko Udalaren eskutik, taldeak egiten duen jarduerarekin lotutako kirol-materiala erosteko. Gainera, Eibarko dendetan erosteko bi bonu ere zozketatuko dira, 50 eurokoa bakoitza, kilometro gehien lortzen dituen klubetako parte-hartzaileen artean. Hori bai, zozketan parte hartzeko gutxienez 25 km erregistratu behar dira eta, geroz eta kilometro gehiago egin, aukera gehiago egongo dira zozketa irabazteko.



Herri ezberdinetako taldeek osatzen duten Baso Biziak Plataformak Elgetan, Espaloia kafe antzokian, egin zuen bi urteko ibilbidearen berri emateko agerraldia.

Aurrera begirako asmoak azaldu ditu Baso Biziak Plataformak

Baso Biziak Plataformak "Udaletako mozioak zertan dira?" prentsaurrekoa eman zuen zapatuan, Elgetako Espaloia kafe antzokian, bi urteko ibilbidearen ondoren mozio horiek zertan diren azaltzeko eta, horrekin batera, aurrera begirako proposamenak egiteko.

Agerraldian esan zuten, bizpahiru urte pasa dira hainbat udaletan basogintza eredu berriaren inguruko mozioak aurkeztu zirenetik eta, balorazioa egin ahal izateko, mozioak onartu dituzten udaletara galdera batzuk bidali zituzten. Hala ere, hainbatek ez dutenez erantzun, "handik eta hemendik kideek emandako datuekin egingo dugu balorazioa".

Orokorrean, onartutako mozioek beraien funtzioa bete dute la pentsatzen dute, "eta onartu ez diren udaletan monolaborantzak

Basoen kudeaketa irizpide zientifikoetan, eta ez soilik produktiboetan, oinarritu behar dela pentsatzen dute plataformako kideek

aurrera egin du, inongo oztoporik gabe, baita eukaliptoak landatuz ere". Horrekin batera, herri askotan antolatutako Baso Biziak taldeetako herritarrek egindako lana eskertu nahi dute, "baita udalarekin izandako harremana eta tentsioa ere landaketak, lur erosketak, debekuak eta moratoriak bete zitezen".

15.000 zuhaitz landatu dituzte

Plataforma osatzen duten 18 taldeek bertako zuhaitzen landaketak egin dituzte: "2021-22ko landaketa denboraldian, 17 hektareatan, 18 espezieetako 5.800 zuhaitz landatu genituen. Eta 2022-23an, 26 hektareatan, 22 espezieetako 9.223 zuhaitz. Horrela, aurrera eramaten ari gara, behin eta berriz, gure proiektuak eskatzen digun praktika. Auzolanean, tokian tokiko bidelagunekin".

Aurrera begira, lurraldea herritarrentzat kapital estrategikoa dela nabarmendu nahi dute, "eta ezin dugu suntsitu epe laburreko onura pribatuen izenean. Apustu garbia egin behar dugu lurraldea ondasun komun bihurtzeko, eta argi izan behar dugu etorkizuneko belaunaldientzako bizi-asegurua dela". Plataformako kideen iritziz, baso-kudeaketa irizpide zientifikoetan oinarrituta egin behar da, "eta ez soilik produktiboetan". Ildo horretan, basoa antolatzeko hiru maila proposatzen dituzte: kontserbaziorako basoak bultzatzea (korridore naturalekin, interes ekologikoko berdegunekin...) eta onura ekosistemakoak dakartzatenak (ura, lurra, biodibertsitatea, kultura, aisia...); hurbileko baso produktiboak bultzatzea, espezie autonomoekin eta landaketa monoespezifikoko mugatuekin; eta baso jangarriak bultzatzea, fruta-arbolekin".



Kukua kantuan eta kuku-belarra loretan. LEIREALBERDI



Untzagarraino eramango da. “Katea animatzen ibiliko dira soinu-joleak, txaranga, hankapaloak... eta berri-tasunik ez da faltako; “Zirikatzailea” izeneko pertsonaia ibiliko da ibilbidean atzera eta aurrera jendea katean sartzerantz animatzen”.

Ibilbidea Urkizutik hasi eta Arraguetatik gora Errebalera joango da, handik Julian Etxeberriara, ambulatortik Toribio Etxebarriara eta handik Untzagara, harmailen aldera. Tarteetan banatuko da ibilbidea, “eskoletan, kirol-taldeetan, kultur eta dantza-taldeetan... jasoko dute gonbidapena zein tarte egokitu zaien esanez, baina gonbidapen barik ere edonor sar daiteke katean, eibartar guztientzat antolatutako ekintza da-eta. Ozen oihukatuko dugu eibartarrok euskaraz bizi nahi dugula”. Arratsaldeko 19:00etan abiatuko da olatua, Urkizutik, eta antolatzaileek kalkulatzan dutenez, handik ordubetera, 20:00ak aldera iritsiko da Untzagara. “Ume, gazte, heldu eta adineko guztiak gonbidatu nahi ditugu, bat egin dezaten gure herria zeharkatuko duen olatu urdinarekin!”, euskalgintzatik deia.

Maiatzaren 19an iritsiko da euskararen olatua

Tantanez Tantan, euskararen aldeko olatua, datorren maiatzaren 19an ospatuko da. Eibarko euskalgintzako taldeek antolatutako ekimena barixakuan egingo da estreinakoz, eta arratsaldez. “Orain arte zapatu eguerdian antolatu izan dugu, eta aurten proba egitea nahi

dugu, uste baitugu jende gehiago egongo dela kalean katea osatzeko. Gainera, Euskal Jaiarekin bat egingo du ekimenak”, diote antolatzaileek. Ekimenaren oinarriak, berriz, ez du aldaketarik izango, hau da, Urkizuko iturrian gantxila urez bete eta eskuz esku, giza katean,

Familia arteko ginkanan izena emateko azken egunak

Datorren maiatzaren 5ean ...eta kitto! Euskara Elkartek, Astixarekin batera, herriko familia eta kuartillentzat antolatuko duen ginkanarako izena emateko epea luzatu egin da. Datorren asteko maiatzaren 2ra arte, martitzena, egongo da horretarako aukera. 943200918/943206231 telefonoetara deituta edo mezua bidaliz (ongietorri@etakitto.eus/astixaeibar@gmail.com) eman daiteke izena. Taldeko kideak familia berekoak edo lagunak izan daitezke, asko jota hamarreko taldeak izango dira, baina bi-lau heldu egotea eta euskara ondo ulertzea ezinbestekoa izango da. Gin-



kana arratsaldeko 17:00etan hasiko da, Untzagan, eta parte-hartzaileek hainbat pista asmatu beharko dute helmugara iritsi ahal izateko. Amaieran saria eta sorpresa egongo dira guztientzat.



Dantzak kaleak hartuko ditu gaur, 17:30etik aurrera

Apirilaren 29a Dantzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Udalak eta herriko dantza-eskolek hori ospatuko dute gaur, kalean dantzan. Biraka Dantza Taldea, Ballet Eibarres, Kaxa, Nele Dantza, Kezka Dantza Taldea, Eva akademia eta Untzaga Jubilatuen Etxea kalera irtengo dira, 17:30etik aurrera Untzaga plazan, Ego Gainen, Torrekuako parkean, Urkizu parkean eta Errebal Plazan dantza-saioak egiteko. Horrela, urte osoan egiten duten lana herritarren aurrean erakutsi nahi dute. Hala azaldu zuten eguaztenean dantza eskoletako ordezkariak, Jon Iraola alkatearekin eta Patxi Lejardi Kultura zinegotziarekin emandako prentsaurrekoan. Aipatutako bost toki horietan dantzan aritu eta gero, 18:45ak aldera talde guztiek Untzagan bertan egingo dute, bertan dantzan jarraitzeko. Ondoren, 20:30ean, Mugi Panderoak girotutako erromeria hasiko da, Untzagan bertan.

Kezka dantza taldeko Oier Araolazak dantzaren garrantzia azpimarratu zuen: “Herritarrek hezteko behar-beharrezkoa da. Jarduera fisikoa egiten dugun bitartean, gure burmuina garatzen goaz eta, gainera, disfrutatu egiten dugu. Taldean egiten denez, edozein gizartek behar duen sinkronizazioa eta kohesioa ere lantzen dugu, konturatu barik”. Ildo horretan, oso kritikoa agertu da une honetan ezbaian dagoen EAeko Hezkuntza Lege Proiektuak, aurrekoak bezala, dantza irakasgairik ez duelako jasotzen.

Eibarren dantzak duen kalitatea eta zenbat jende aritzen den ere nabarmendu zituen: “Hemen ordezkakuta gauden taldeetan, guztira 1.286 lagun aritzen gara urte osoan dantzan. Horietatik 571 umeak dira eta 678 helduak. 37 dantza irakasle gara eta denera astero 175 ordu ematen ditugu dantza egiten”. Hala ere, oro har, egiten duten lan handi hori nahiko ezezaguna izaten jarraitzen du, “dantzan aritzen direnetatik %93 emakumeak direlako”.



Julenek “Bihotzera giltza” aurkeztuko du Ermuan

Julen musikari eibartarrak kontzertua emango du Ermuko Antzokian maiatzaren 12an, barixakua. Artistaren lehen EParen, “Bihotzera giltza” izenekoaren aurkezpen kontzertua izango da. Ez da bakarrik arituko, luxuzko kolaboratzaileak izango baititu bidelagun: Asier Beramendi (Eraul), Esanezin, Idoia Asurmendi eta Pablo Zurutuza (Mugan), besteak beste. Gonbidatu horiez gain, Benetan Zabiz podcastaren show berezia eta Ainhoa Aldazabal euskal sortzailearen kolaborazio berezia izango ditu. Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrerak Kutxabanken edota Ermuko Lobiano Kulturgunean eskuratu daitezke.



Talogintza ikastaroa antolatu dute Kulturean maiatzaren 16rako

Euskal Jaiaren egitarauaren barruan, larrain dantzaren erreposoa burutzen ari dira eguaztentean Arrateko Andra Mari ikastetxean, 19:00etatik 21:00etara, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Saioak astero egingo dira, maiatzaren 17ra arte. Eta, horrez gain, maiatzaren 16an talogintza ikastaroa egingo dute Arrate Kultur Elkarteko lokaletan, 18:30etik aurrera, Soko Baskaranekin. Ekimen horiek doakoak dira bazkideentzat eta 5 euro ordaindu beharko dituzte bazkide ez direnek. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638284912 telefono zenbakira deitu behar da.



Argazkilaritza Maiatzean aurkeztu dute

Aurreko astean aurkeztu zuten Argazkilaritza Maiatzean-eko programazioa, Klub Deportiboan. Klub Deportiboko argazkilaritza-batzordeak antolatutako egitaraua maiatzeko lehen barixakuan, hilaren 5ean, hasiko da, herritik banatuko diren erakusketa guztiak inauguratzearekin batera. Horietako lau Portalean zabalduko dituzte, 18:30ean, eta jarraian Topalekura joango dira, bertako erakusketa zabaldu eta pintxo batzuk jateko. Beste erakusketak Untzagako Jubilatuen Etxean, Portalea tabernan eta Klub Deportiboan bertan egongo dira. Erakusketez gain, beste hainbat jarduera antolatu dituzte: Portalean euren lanak erakutsiko dituzten Enric de Santosek eta Natxo Zenborainek hitzaldia emango dute maiatzaren 6an. Eta handik zortzi egunera Topaketak Kalean egingo dituzte, Untzagan. Maiatzaren 20an Txema Lacunzak egun osoko tailerra emango du, Arrate Kultur Elkartean. Eta hurrengo egunean argazki-rallya egingo dute goizetik, zuri-beltzean eta digitalean. Jarduera guztiak doan eta zaletu guztientzat zabalik egingo dira, baina Lacunzaren tailerrean parte hartzeko izena eman behar da aurretik, plaza kopurua mugatua da-eta

Sanjuanetako kartel-lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago

Kultura Batzordeak Sanjuanetako kartel-lehiaketan izena emateko epea zabaldu du. Maiatzaren 12ra arte egongo da lanak bidaltzeko aukera. Sariei dagokionez, 15 urtetik gorakoen saileko irabazleak 1.000 euro jasoko ditu; eta bestetik, 11 eta 14 urte arteko eta 10 urte azpiko irabazleak sari bereziak jasoko dituzte, baina dirurik ez. Lehiaketan izena emateko bideak eta oinarriak kontsultatzeko udalaren webgunera jo dezakezue.



“Menu” dantza-ikuskizuna eskainiko dute bihar

Dantza konpainiaren eskutik, “Menu” dantza-ikuskizuna eskainiko dute bihar, 19:30etik aurrera, Errebal Plazan hasi eta Untzagaraino joango den kalejiran. Iaz estreinatutako Josu Mujika koreografoaren lana oso harrera ona izaten ari da taularatu duten toki guztietan. Mujikaren berbetan, “ordu erdi inguruko emanaldia da, oso alaia, eta maila handiko dantzariekin”.

Udaleku irekietarako izen-ematea

Aste honetan hasi da “Oporrak afariketan”, “Udan jolasean”, “Firin Faran” eta “Umiak Firin Faran” udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea eta maiatzaren



7ra arte egongo da zabalik horretarako epea. “Udan jolasean” eta “Umiak Firin Faran” programak 5 urteko haurrei zuzenduta daude, hau da, 2017. urtean jaiotako haurrentzat. “Oporrak afariketan” eta “Firin Faran” programak, ostera, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko haurrentzat dira. Bakoitzari buruzko informazio zehatza udalaren webgunean eskuratu daiteke eta aurrematrikula ere bertan bete daiteke.

“Hace frío fuera” aforismo liburua liburutegian eskuragarri

Alberto Egurrola Albeniz eibartarrak idatzi duen bigarren aforismo liburua, “Hace frío fuera” izenburuko lana eman die Juan San Martin udal liburutegikoei. Hitzekin jolasean dabilen bitartean, egileak hausnarketara bultzatu nahi ditu irakurleak eta, era berean, munduari buruzko bere ikuspegia ematen du. Nahi duenak liburutegian dauka horretarako aukera.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

7	8			3			
						2	6
		1	5	6			
	5			8			9
	4	7		5	3	2	
3			4				1
			7	4	9		
	2	5					
			2			3	6

D	C	B	L	D	E	A	
P	I	N	K	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	
S	O	L	V	E	R	E	

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9	4	6		1	8	
	1		5				
		5					1
9	8			2		3	
		2				6	
		6		3			4 2
5						2	
					9		8
	8	2		5	4	7	

soluzioa

8	2	9	2	9	6	1	
8	8	6	1	7	7	9	
2	2	9	9	6	6	6	
1	1	8	4	6	4	1	
8	8	7	1	7	7	4	
1	1	7	7	1	7	4	
1	1	7	7	1	7	4	
1	1	7	7	1	7	4	
1	1	7	7	1	7	4	
1	1	7	7	1	7	4	



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Apirilak 28 / Maiatzak 4

BARIXAKUA 28

DANTZA

17:30 Dantza-saioak, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Untzaga, Ego Gain, Torrekuako parkea, Urkizuko parkea, Errebal Plaza.

20:30 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin. Untzaga.



ZAPATUA 29

URTEURREN JAIA

13:30/15:30 Gazta-lorak, Gautena elkartearen alde.
19:45/21:45 Jota Bejarano.
23:00 DJ Juanma Cano. Ametsa taberna.



ZAPATUKO IPUINA

16:00 "Besoetako ipuinak", Ana Apikarekin. Portalea (areto nagusia).



DANTZA

19:30 "Menu" Dantza Konpainiaren dantza ikuskizuna. Kalejira, Errebaletik Untzagara.



SANTA KURUTZ JAIK

19:00 Poteo musikatua, Untzagan.

20:30 Ixua joateko autobusa (udaletxe aurretik).

21:00 Bertso afaria: Julio Soto, Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia. Ixua jatetxea.



DOMEKA 30

URTEURREN JAIA

13:30/15:30 Gazta-lorak, Gautena elkartearen alde.
13:30/16:00 Sofa-musika. Ametsa taberna.

ASTELEHENA 1

MAIATZAREN LEHENA

12:00 LAB sindikatua deituta, manifestazioa. Untzagatik. Ekitaldi politikoa.

14:30 Herri bazkaria. Bazkaloste musikatua Garazi eta Amaiurrekin. Udaletxeko arkupeak.



EGUAZTENA 3

SANTA KURUTZ EGUNA

17:30 Kanpai-jotzea.
18:00 Meza, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Santa Kurutzeko ermita.

HERRI-BATZARRA

19:00 Eibarko EH Bilduren aurkezpena: udal hauteskundeetarako kanpaina eta programa. Bilgunea.

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

EGUENA 4

HITZALDIA

10:00/12:00 "Guztiaren jatorria: familia. Ahaidetasunaren antropologiarako sarrera", Ander Espallarga-en eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

ERAKUSKETAK

Apirilaren 30era arte

- "DARKTEAM", argazki erakusketa. (Depor taberna)
- CONXITA LOPEZ-en argazki erakusketa. (Portalea jatetxea)
- "ANDRETXEA, GURE GELA PROPIOA", Eibarko 12 emakume artistaren lanak. (Andretxea).
- "Gazte ARTEan". Eibar BHI. (Portalea).
- "EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA". (Portalea).
- "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea).

Maiatzaren 1era arte:

- "EAB 100 URTE. Emakumeak aberria eginez" (Unzaga Plaza hotela).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

28an (BARIXAKUA) ANTZERKIA
20:30 / Ermua Antzokia
"Un Oscar para Oscar"

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **29an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00 (Antzok), 20:00
- **1ean:** 19:30

“¡Vaya vacaciones!”
UMOREZKOA



2022/Espainia/9100'
Zuzendaria: Victor Garcia Leon
Aktoreak: Toni Acosta, Ernesto Sevilla, Tito Valverde
Komedia/Familia girokoa

2 ARETOA

- **29an:** 17:00
- **30ean:** 20:00
- **1ean:** 19:30

“Novembre”
THRILLER-A



2022/Frantzia/105'
Zuzendaria: Cedric Jimenez
Aktoreak: Jean Dujardin, Anais Demoustier, Sandrine Kiberlain
Gertatutakoa/Terrorismoa

2 ARETOA

- **29an:** 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00

“20.000 especies de abejas”
DRAMATIKOA



2023/EAE/129'
Zuzendaria: Estibalitz Urresola
Aktoreak: Sofia Otero, Patricia Lopez, Ane Gabarain
Transexualitatea/Hurtzaroa

ANTZOKIA

- **29an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **30ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **1ean:** 19:30

“Los buenos modales”
DRAMATIKOA



2023/Espainia/91'
Zuzendaria: Maria Diez
Aktoreak: Elena Irureta, Gloria Muñoz, Carmen Flores
Komedia/Familia harremanak

FAMILIEN ARTEKO GINKANA

Izena emateko AZKEN EGUNAK!!

Malatzaren 2ra arte

943200918 / ongiatorri@etakitto.eus

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAIKE**, maiatzaren 2xan 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Lur, Oinatz eta Bernateren partez.



Zorionak, **URKO**, eguaztenian 9 urte egin zenduazzen-eta. Milla kilo musu famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ELAIA!** Konturatu orduko... urtetxua beteko dozu bixar! Jarraitu irribarre horrekin gure bihotzak betetzen! Laztanak famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **EKAIN**, martitzenian 4 urte bete zenduazzen-eta. Famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **ANDER**, atzo 6 urte bete zenduazzen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu!



Olerki laburrenaren bertsorik politenak bi hitz baiño ez ditto: Maite zaittugu! Jarraitu jator eta pozik bizi. Egun ederra igaro, **SIMONE!** Musu haundi bat.



Zorionak, **UDAI!** Domekan 8 urte haundi beteko dozuz-eta. Besarkada potolo bat eta jarraitu beti bezain autentikua izaten.

ZURETZAT PRESTATUTAKO **AMETSA** *Gin Bar* 8. URTEURRENA

29

ZAPATUA

19:45/21:45

Jota Bejarano

13:30/15:30 terrazan ZAPATU ETA DOMEKA

Gazta-lorak

GAUTENArekin elkartanean

30

DOMEKA

13:30/16:00

Sofa-musika

Mahou

★★★★★

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Zuloagatarren kalean. 7. solairua. Fatxada eta teilatua berriztu berriak. 235.000 euro. 660378181.

1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).

- Etxebizitza alokagai Eibar erdialdean. 688667994.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan ere. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan ere. 640881328.
- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazio-ziurtagiria) edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia handia duen neska donostiarra Eibarko etxeetan lan egiteko eskaintzen da. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntzeko teknikari titulua. 699473761. anaulia71@gmail.com
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, eta baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 631687276.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 631511111.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. 613744564.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643577589.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480623. Yanelis.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480625. Daniel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 688627689.
- Emakumea eskaintzen da pisu, hotel edo egoitzetako kamarera bezala eta baita garbiketarako egiteko ere. Orduka. 671763558.
- Emakumea eskaintzen da administratibo bezala, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita aste-buruetan ere. 624910331.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) zaintzeko. Orduka. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko. 688779828.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. 612583671.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak arratsalde nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641456514.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 600836168.
- Mutila eskaintzen da tabernezan edo bildegietan lan egiteko. 747451984.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643577589.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480623. Yanelis.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480625. Daniel.

4.2. Langile bila

- Elgoibarko baserri baten edadetuak zaintzeko pertsona behar da. Kurso sozio-sanitarioa eginda eta paperekin. Interna. 653723095.
- Odontologoa behar da klinika batean lan egiteko. Interesatuak curriculum-a bidali: hortzklina.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskeraek

- Kontabilitate klaseak emateko pertsona behar da. Administrazio Kudeaketa modulorako. 669719349.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Maiatzaren 7an Ficobara (Correos-eko OPE) joango den autoduna edo talde baten bila nabil, elkarrekin joateko. 650113060.

MGEP

MONEDAKON 50. EGUNA POLITIKARRA
2023. URRIAREN 27. EGUNA, 10:00 ETX.

"Lan esperientzia izugarria izan da, DUAL eredia biziki gomendatzen dut"



**Andoni Romero
Asteburuaga (Arrasate)**

Sare eta Informazio Sistemen
Administrazioa (ASIR)
Gol mallako Heziketa
Zikloa (GMHZ)

2. maila ikasten ari naiz eta bertan ikasten nengola **FACORHEALTHCARE** enpresan **DUAL OROKORRA** eta **AURRERATUA** egiteko aukera eskaini zidaten. Geroztik bertan jarraitzen dut.

FACORHEALTHCARE gaitxo kronikoen atxikimendua hobetzen laguntzen duen farmazia zerbitzua eskaintzen duen enpresa da. Nire lan postua bezeroei zerbitzua ematean datza. Hainbat motatako goxabeherak edo zalantza aurre egiteko. Ohiko SAT (Servicio Atención Técnica) lana egiten egon naiz; bezero guztei laguntza ematen. Gure zuzeneko bizeroak orain farmazian lanetan ari dira, biazien bitartez gure produktuak gaitxo kroniko polimedikatuak iristen bait dira.

#LanerakoGertu

Enpresaren produktua hardware eta software atalak ditu, eta horien funtzionamendua azaldu, erabilera arazoak egonda, aholkularitzak eman eta bereziki erantzun bat ematea da nire lana. Bestetik, konpondutako makinen bidalketak ere antolatzen aritu naiz eta huts egiten dutenak edo akatsen bat dutenak biltzen ere aritzen naiz, horien eguneratzea edo/eta akats berri diren instalazioetan ere laguntzen aritzen naiz.

Enpresaren lan esparrua oso lan aukera egokia bilakatu da, ASIR zikloan ikasketarekin ongi lotatuta dagoelako bertan egin behar diren lan guztiak betetzeko orduan, nahiz eta noski batzuk ez dituztela jelan ikasi, han oinarri egokia lortu dut, gero enpresan ondo aritzeko. Hala ere, egunero ikasten nabil.

Zikloa ikasketak egitekoan praktika asko egin dugu, bai ariletak eta bereziki erronkak, indibidualki eta talde lanetan egindako proiektuak baina noski, lan-erperientzia izugarria izan da. **DUAL** eredia biziki gomendatzen dut.

Pertsonalki, enpresan praktikatik egiteak lan munduan sartzen lagundu dit. Gainera, nire buruarengan konfiantza gehiago hartzea ahalbidetsi dit. Gustura nago, eta lanean laguntzen dutela ikusten dut, eta hau oso balagarria zait.

ATE IREKIAK: Malatzak 6 11.00

Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704



**FIBAR
Antzitzika
KLUBAK**

APIRILAREN 27TIK
MAIATZAREN 25ERA

DESKARGATU
APLIKAZIOA!

Wellk ANTZITZIKAK

*Garatutako negozio-plana daukazu,
baina zehaztu beharreko
kontu espezifikoak dituzu?*

EHUNDU

**EKINTZAIETZA PROGRAMA
DA ZURE AUKERA!**

EMAN IZENA!

